



TOLOSAKO  
UDALA

## EZ OHIKO GOBERNU BATZARRA

2018.07.11

**Alkatea:** Tolosako Udaletxean, bi mila eta hemezortziko uztailaren hamaikan, 8:00etan, Tokiko Gobernu Batzarra bildu da ez ohiko bilera egiteko. Mahaiburua alkatea izan da, eta alboko zinegotziak agertu dira, eguneko gai-zerrenda aztertzeko.

**Olatz Peon Ormazabal**

**Zinegotziak:**  
**Patxi Amantegi Zubiria**  
**Nerea Letamendia Beloso**  
**Jokin Azkue Arrastoa**

**Idazkaria:** 1. Tolosako Udal mugapean bidaiariak garraiatzeko zerbitzu publikoaren esleipena berrestea eta kontratua izenpetzea.

**Begoña Garmendia Vazquez**

**Kontuhartzailea:**

**Ainhoa Molinos Zubiaurre**

### **1. TOLOSAKO UDAL MUGAPEAN BIDAIARIAK GARRAIATZEKO ZERBITZU PUBLIKOAREN ESLEIPENA BERRESTEA ETA KONTRATUA IZENPETZEA.**

#### **AURREKARIAK**

**Lehena.-** 2018ko martxoaren 1eko Gobernu Batzordeak, Tolosako udalerrri barruan bidaiariak garraiatzeko zerbitzu publikoa kontratatzeko espedientea onartzea eta lizitazioari hasiera ematea adostu zuen. Bertan onartu zen, kontratuaren iraupena urtebetekoa izango zela, zegokion administrazio-kontratua formalizatzen zen unetik zenbatzen hasita. Epe hori beste sei hilabetez luzatu ahal izango zelakoan, Administrazio-Baldintza Pleguan xedaturiko kasuan, eta kontratuaren iraupen osoa, luzapenak barne, gehienez ere urte t'erdikoa izango zelakoan.

Esleipen-jardunbidea egiteko Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateratua onartzen zuen azaroaren 14ko 3/2011 Errege Dekretu Legegileak 157. eta hurrengo artikuluetan xedaturikoarekin bat etorritz, **jardunbide irekia** erabiliz izapidetu zen, Administrazio Baldintza Zehatzen Agiriaren 8. klausulan xedatzen zenaren arabera.

Bestalde, kontratuaren ezaugarriak kontuan izanik, esleipena **irizpide bat baino gehiago erabiliz** egitea proposatu zen, Administrazio Baldintza Zehatzen Agiriaren 14. klausulan



TOLOSAKO  
UDALA

zehaztutako esleitze-irizpideen arabera, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateratua onartzen duen azaroaren 14ko 3/2011 Errege Dekretu Legegilearen 150.1 artikuluan aurreikusitakoa betez.

Kontratuaren urteko prezioa eta kontratu honek eragiten zituen gastu-kopurua onartu zen: **229.279,78€ (BEZa barne)**, horietatik 208.436,16€ printzipalari dagozkio eta 20.843,62€ %10eko BEZari, honako aurrekontu-partidari atxiki zitzaiolarik: 2018.0700.223.01.441.10

**Bigarrena.-** 2018ko maiatzaren 10ean ospatutako Gobernu Batzordeak, behin kontratazio-jardunbidea jarraitu eta gero, hau erabaki zuen: "Lizitazio egintza baliokotzat jotzea eta Cuadra Bidean, S.L., enpresari adjudikatzea Tolosako udal mugapean bidaiarien herri-garraio zerbitzua, hurrengo era honetan: **Prezioa:** 198.134,51 € (BEZa barne). Horietatik 180.122,28 € printzipalari dagozkio eta 18.012,23 €, % 10eko BEZari. **Kontratuaren iraupena.-** Urte batekoa, kontratua sinatzen denetik, baina 6 hilabetez luzatzeko aukerarekin, kasu hauetan..."

**Hirugarrena.-** Udalaren eta Cuadra Bidean, S.L. enpresaren artean dagokion kontratua sinatu aurretik, enpresak orain arte zerbitzua prestatzen zuen langilearekin harremanetan jarri zen hau zerbitzu berrian kontratatu ahal izateko, Bidaiarien Garraio Hitzarmen Kolektiboak xedatutakoarekin betetzeko nahian. Langile honekin izandako elkarrizketetan (Udal honek jasotako dokumentazioaren arabera), Cuadra Bidean, S.L. enpresak Gipuzkoako Hitzarmen Kolektiboaren edukia hobetu zuen; hala ere langileak ez zuen proposamena onartu eta greban jarraitzea nahi izan du, bere eskaera guztiak onartu ez direlako.

**Laugarrena.-** 2018ko ekainaren 20ean, kontratua sinatu aurretik eta beraz, zerbitzua prestatzen hasi aurretik, Cuadra Bidean, S.L. enpresak idatzi bat aurkeztu du Tolosako Udalean, subrogagarria den langilearen lan-ordezkariek eskatutakoa, kontratuaren desoreka ekonomikoa arriskuan jarriko lukeelako eta aurkeztutako proposamenean hauek aurreikusten ez zirelako. Horren ondorioz, kontratazio jardunbidea bertan behera uztea eskatzen dute, ezinbesteko arrazoiengatik eta eratorritako arrazoiak direla eta. Era berean, enpresak aurkeztutako bermearen itzulketa eskatzen du.

**Bosgarrena.-** Udal Idazkariak ekainaren 21ean egindako txostenean, hau proposatu zuen: "Lehena.- Cuadra Bidean, S.L. enpresak aurkeztutako idatzia ikusirik, larrialdi egoera ikusita eta aipatutako interes orokorreko arrazoiak direla eta, Tolosako Udalak ez du Cuadra Bidean, S.L. enpresak aurkeztutako idatzia onartzen eta beraz, uko egiten dio kontratazio jardunbidea bertan behera uzteko eskaerari. Era berean, Udalak hilabeteko epea ematen dio Cuadra Bidean, S.L. enpresari eta subrogagarria den langilearen lan-ordezkariei, dagokion akordiora iris daitezen. Hilabeteko epe hau akordiorik gabe gauzaten bada, Udalak baliagarri dituen legezko eskumen guztiak erabiliko ditu zerbitzua bermatzeko. Bitartean Udalak zuzenean emango du hiribus zerbitzua, soilik eta ezinbesteko denborarako eta Udalak zerbitzuaren esleipen berria baldintza egokietan gauzatu ahal duen bitartean.



TOLOSAKO  
UDALA

**Bigarrena.-** Aurrekoa garatu ahal izateko, kudeaketa sisteman behin-behineko aldaketa egitea, zerbitzua zuzenean Udalak eskaini ahal izateko, horretarako behar diren baliabideak erabiliz.

**Hirugarrena.-** Udalak autobus bat alokatzea zerbitzua dagokion eran eman ahal izateko, beti ere bidaiariak garraiatzeko baimen guztiak dituelarik eta orain arte zerbitzua prestatzen zuen enpresak, Udalak errekeritu bezala, autobusa Udalaren esku jartzen ez duen bitartean.

**Laugarrena.-** Ibilgailua gidatuko duen pertsona kontratatzea, indarrean dagoen legediaren arabera eta beti ere lan-legeria eta indarrean dauden hitzarmen kolektiboak betez.

**Bosgarrena.-** Cuadra Bidean, S.L. enpresak bere idatzian egindako eskaerari, non esleipenean aurkeztutako bermea itzultzea eskatzen zuen, ezetza ematea, enpresaren eta langilearen lan-ordezkarien arteko negoziazioa gauzatzen ez den bitartean.

**Seigarrena.-** Europar Batasuneko Aldizkari Ofizialera (DOUE) Tolosako Udalerrian bidaiariak garraiatzeko zerbitzu publikoa esleitzeko kontratazioaren aurretiazko iragarkia bidaltzea, indarrean dagoen Sektore Publikoko Kontratuen Legeak agintzen duena jarraituz.”.

**Seigarrena.-** 2018ko uztailaren 11n Idoia Cuadra Ibáñez de Elejalde andreak, Cuadra Bidean, S.L. enpresaren izenean eta ordezkapenez, idatzi bat aurkeztu du Udal erregistroan 5842 zenbakiarekin, non enpresa esleipendunaren eta subrogagarria zen langilearen ordezkarien artean akordio batera iritsi diren.

Idatzian, enpresak honako hau betetzeko konpromisoa hartzen du:

1. enpresak ekainaren 20ean aurkeztutako eskaerari uko egitea.
2. dagokion kontratua sinatzea eta zerbitzua 2018ko uztailaren 16an emateari hasia.
3. Langilearekin eta honen lan-ordezkariarekin dagokion akordioa sinatzea.

### **APLIKATU BEHARREKO LEGERIA**

7/1985 Legeak, apirilaren 2koak, Toki-Araubidearen Oinarriak arautzen dituenak bere 26. artikuluan aipatzen du: “1.- Udalerriek beren kasa edo elkaturik zerbitzu hauek bete beharko dituzte, nolahi ere: a) Udallerri guztietan: Herriko argiteria, hilerria, hondakin-bilketa, kale- bideen garbiketa, edateko uraren etxeetako hornidura, estolderia, biztanleguneetarako iripideak, herri barruko bideen zoladura eta janarien eta edarien kontrola. b) 5.000 biztanle baino gehiago dituzten udalerrietan, lehengoz gain: Herriko parkea, liburutegi publikoa, merkaturia eta hondakinen tratamendua. c) 20.000 biztanle baino gehiago dituzten udalerrietan, lehengoz gain: Babes zibila, gizarte zerbitzuak betetzea, suteei aurrea hartzea eta suteak itzaltzea, eta erabilpen publikoko kirol-instalazioak. d) 50.000 biztanle baino gehiago dituzten udalerrietan, lehengoz gain: Bidaiari-taldeentzako hiriko garraioa eta ingurumenaren babesa.”.

27/2013 Legeak, abenduaren 27koak, Toki-administrazioaren Arrazionalizazio eta Iraunkortasunari buruzkoak, bere 1.23. artikuluan, aurretik aipatutako 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituenaren 86. artikulua aldatu zuen: “Toki-entitateen alde gordeko dira funtsezko jarduerak edo zerbitzu hauek: uraren



TOLOSAKO  
UDALA

arazketa eta etxeko hornidura; hondakinen bilketa, tratamendua eta aprobetxamendua; eta bidaiarien garraio publikoa, aplikagarria den sektoreko legedian aurreikusitakoari jarraiki. Estatuak eta autonomia-erkidegoek, bakoitzak bere eskumenen esparruan, beste jarduera eta zerbitzu batzuk hartu ahal izango dituzte legearen bidez.”.

2/2016 Legeak, apirilaren 7koak, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoak bere 17.1 artikuluan, Udalerrien eskumen propioei buruz hau esaten du: “lege honetan eta aplikatu beharreko legerian xedatutakoaren esparruan, udalerriek honako esparru material hauetan erabili ahal izango dituzte eskumen propioak: 18) bidaiarien hiri barruko garraio publikoa –garraibidea edozein dela– antolatzea, planifikatzea, programatzea, kudeatzea eta sustatzea, eta horien inguruko diziplina ezartzea, betiere garraioa udalerriaren barruan egiten bada osorik.”.

3/2011 Legegintzako Errege Dekretuak, azaroaren 14koak, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bategina onartzen duenak, bere 308. artikuluan kontratu bat suntsiarazteko kausei buruz hau xedatzen du: “Lege honen 223. artikuluan aipatutakoez gain, hauek dira zerbitzu-kontratuak suntsiarazteko kausak: a) Kontratuak, hasi behar zuen egunetik aurrera, kontratuak sei hilabete baino gehiago baldin badarama hasi gabe, administrazioari egotzi ahal zaion kausaren batengatik, non eta pleguan ez den beste epe bat zehaztu. Kontratuan bertan jarriko du noiz zen hastekoa. b) Administrazioak kontratuan atzera egitea edo kontratua, berak erabakita, urtebete baino luzaragoan etenda egotea, non eta pleguan ez den beste epe bat ezartzen. c) Lege honen 303. 2 artikuluan aipatzen diren kontratu osagarriak, berriz, suntsiarazita geratuko dira beti, kontratu nagusia suntsiarazten denean.”. Gainera Lege bereko 223. artikuluen f) eta g) zatiek hau zehazten dute: Hauek dira kontratua suntsiarazteko kausak: f) Kontratuko gainontzeko funtsezko obligazioak, pleguetan edo kontratuan halakotzat ezarri direnak, ez betetzea. g) Prestazioa hasieran adostutako moduan emateko ezintasuna edo prestazioa baldintza horietan ematen jarraituz gero interes publikoari lesio larria eragiteko benetako arriskua, kontratua I. liburuko V. tituluan xedatutakoaren arabera aldatu ezin bada.”.

### **ONDORIOAK**

Aurreko guztia aintzat harturik, Udal Idazkariak egindako txostena ikusita eta Cuadra Bidean, S.L. enpresak aurkeztutako idatzia ikusirik, 5842 erregistro zenbakiduna, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

## **ERABAKI DU**

**LEHENA**.- Cuadra Bidean, S.L. enpresak aurkeztutako idatzia onartzea, proposamen honetan aipatutako terminoetan. Halaber, adieraztea Tolosako Udalak ez diola ezer erreklamatuko aipatu enpresari idatzian jasotako gertakizunengatik.



TOLOSAKO  
UDALA

**BIGARRENA.**- Udalaren eta Cuadra Bidean, S.L. enpresaren artean dagokion kontratua sinatzeko eguna eta ordua, 2018ko uztailaren 12an, goizeko 11.30etan finkatzea; horretarako enpresari dagokion deialdia eginda.

**HIRUGARRENA.**- Erabaki honen berri ematea Cuadra Bidean, S.L. enpresari, Kontuhartzailaetari eta Obrak eta Zerbitzuak Departamentuari.

**Eta besterik gabe, bilera amaitutzat jo da 8:30ean.**

**ALKATEA**

**IDAZKARIA**